



Bidasoa - Txingudi

BIDASOA-TXINGUDI

www.irunhondarribiahendaye.com

ASTE SANTUKO ETA PAZKOETAKO JAIK

Garai hau une garrantzitsuetako bat da Bidasoa ibaiaren bi aldeetan dauden erlijio tradizioei dagokienean.

ASTE SANTUA

Hondarribiko prozesioa bereziki ezaguna da Gipuzkoan eta ikusnahi asko erakartzen ditu. 1602. urtetik egiten den erritua da eta Ostiral Santu arratsaldean egiten da Jasokunde eta Sagarrondoko Andre Maria elizan **“Kristo gurutziltzatuaren jaitsiera”** irudikatuz.

Sakristiatik ateratzen dira hamabi apostoluak tunika ikusgarri jantzita, bakoitzak ezaugarri duen ikurra eramanez, eta erromatar soldaduak Udaletxetik ateratzen dira **Jasokundeko parrokiarantz**, eta han Kristo eraisten dute presbiterioan dagoen gurutzetik eta arantzazko koroa, gurutzearen inskripzioa eta iltzeak kentzen dizkiote erabateko isiltasunean, eta ondoren kristaleko hilkutxan sartzen dute gorputza.

Orduantxe hasten da **“Isiltasunaren prozesioa”** hilkutxa mantso-mantso eramanez hiriko kaleetan barrena, parrokiako abesbatzak eta herriarrek irudikatutako pertsonaia askok lagunduta, eta berriro elizara ekartzen dute **“Kristo gurutziltzatuaren jaitsiera”**.

PAZKOA

Hendaian bestelako tradizio bat antzezten dute hiri osoan Pazko igande goizean: **“Pazko arrautzak”**. Ohitura da oilo arrautza koloreztatu bat eskaintzea, emankortasunaren eta pizkundearen ikur gisa. Gaur egun azukrearekin edo txokolatearekin egiten da arrautza, baina opari horrek oilo, untxi, erbi edo kanpai itxura ere izan dezake.

Sinesmen katolikoen arabera, kanpaiek Ostegun Santuko meza bukatzen denetik aurrera uzten diote jotzeari dolu gisa Kristoren heriotzagatik, eta larunbat gauean itzultzen dira Kristoren gaubeilaren amaieran, barrutik opariz beteak dauden Pazko arrautzak basoetan eta lorategietan uzteko. Igande goizean jaikitzean haien bila joaten dira haurrak **“arrautza ehizara”**.

Hiri batzuetan, **Hendaian** esate baterako, arrautza ehiza horiek antolatzen dituzte. 2019an, hiru ezkutaleku prestatuko dituzte hirian. www.hendaye-semaines-des-enfants.com helbidean adieraziko da zein lekutan.

BIDASOA-TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

ALBISTEAK

HONDARRIBIA IRUN TURISMOA

www.bidasoaturismo.com



Turismo bulego berria **Hondarribian**: Turismo bulego berria ireki da Portu Auzoan, Kirol Kaian zegoenaren orde, auzo hori baita turista gehien erakartzen dituen auzoa. Ekimen horrek oso harrera ona izan du, eskaeren kopuruak nabarmen gora egin baitu, bisitarientzako turismo informazioa eskuratzeko aukera handituz, ikusteko lekuei, gastronomiari, ostatuei, garraioei eta aisialdiko jardueri buruzko informazioa izan dezaten.

Gourmet Experience: Hondarribia Irun Turismoak bere webgunean proposatzen du **Hondarribian** eta **Irunen** esperientzia enogastronomikoen ibilbide bati jarraitzea dastaketak, bisita gidatuak ekoizleei, sukaldaritza tailerrak... eginez. Aukeratu eta goza ezazu!

HENDAYE TOURISME

www.hendaye-tourisme.fr



Hendaia bat egin du Famille Plus norakoen klub erreserbatuarekin: Bere natur baliabideei eta 2012. urteaz geroztik gazteenen alde hasitako jardueri esker, **Hendaia** hiriak bere hautagaitza aurkeztu du 2018an “Famille Plus” labela eskuratzeko. Joan den urriaren 8an, astelehenarekin, jaso zuen Alkate jaunak ofizialki bereizgarri hori, Géraldine Leduc, l'ANETT (Association Nationale des Elus des Territoires Touristiques) erakundeko zuzendaria aurrean zela. Baliabide horrekin konprometitzea onartu duten eta udan ikuskatuak izan diren 17 profesionalak ere saritzen ditu label horrek. Guztiek jakin izan dute beren isileko bezeroen espektatibei erantzuten eta familiei egokitutako zerbitzuak proposatzen... Bestela esanda, proiektuan inplikatu dira.

<https://www.hendaye-tourisme.fr/fr/a-faire/famille-plus/>

2019ko ekainera arte jarraituko dute itsasaldeko obrek: Lanek itsas pasealekua hobetuko dute eta 10 kilometro inguruko bizikleta bideaz gozatzeko aukera izango da.

TURISMO NEWSLETTERA

1. – 2019ko martxoa



3 hiri, helmuga 1...
[irunhondarribiahendaye](http://www.irunhondarribiahendaye.com)



Bidasoa - Txingudi

URTE OSOAN

ONDAREA

Oiasso erromatar museoa: bidaiatu ezazu erromatarren garaira Oiasso portuko hondakin arkeologikoekin, bertako termekin, nekropoliarekin eta meatze ustategiekin.

Eskoleta 1, [Irunen](#).
www.oiasso.com

Kultur Informazio zentroa: ezagutu ezazu hiria bere historiaren, ondare ukiezinaren eta bere kulturaren bidez, egungoa nahiz tradizionala.

Arma Plaza 9, [Hondarribian](#).
www.armaplaza.eus

Abbadia Gaztelu Behatokia: Etor zaitez Euskal Herriko gaztelu bereziena ezagutzera edo berrezagutzera, bisita gidatuak urte osoan.

Route de la Corniche, à [Hendaye](#).
www.chateau-abbadia.fr

Bidasoko Interpretazio zentroa: Oinezkoentzako nazioarteko zubiaren ertzean, badiako bidearen bihotzean, [Irun](#), [Hondarribia](#) eta [Hendaia](#), hiru hiriak biltzen dituen mugaldeko lurralde honetan aurki daitezkeen interes komuneke gai nagusiak ekartzen ditu gogora zentro honek.

www.irunhondarribiahendaye.com

AZOKAK

[Irunen](#), azoka larunbat goizetan Urdanibia plazan.

[Hondarribian](#), baserriko produktuen azoka asteazkenetan Damarri plazan eta larunbatetan Portuan; brokantea eta bildumazaletasuna hilabetero 1. eta 2. igandeetan Kirol Kaian; arte azoka hilabetero 3. igandean Kirol Kaian.

[Hendaian](#), merkatu txikia asteazken goizetan Errepublikan plazan eta larunbat goizetan Sokoburun.

BIDASOA-TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

AGENDA

UDABERRIAN

Martxoak 21 ostegunetik martxoak 24 igandera: [Hendaia](#)ko (FILMAR) "Film de la Mer" jaialdiaren 12. edizioa. Sokoburuko auditoriumean. Sarrera doan. www.filmar-hendaye.fr

Martxoak 29 ostiraletik martxoak 31 igandera: Sevatur, oporraldien erakusketa [Irun](#)go FICOBAn erakustazokan. www.sevatur.com

Apirilak 18 ostegunetik apirilak 22 astelehenera: Aste Santua eta Pazko asteburua. Isiltasunaren prozesioa apirilak 19 ostiralean, [Hondarribiko](#) Parrokia elizatik hasita. Arrautza ehiza apirilak 21 igandean [Hendaian](#) "Les Semaines des Enfants" ekitaldiaren esparruan (apirilaren 8tik maiatzaren 3ra).

Apirilak 25 osteguna: San Markos eguna [Irunen](#) eta [Hondarribian](#). Kasu honetan amabitxiek opila oparitzen diete besoetakoei hurbilen duten elizan bedeinkatu ondoren. Ondoren elkarrekin joan ohi dira opila jatera San Martzial ermitara [Irunen](#) eta Jaizkibel mendian Guadalupera [Hondarribian](#).

Apirilak 26 ostiraletik apirilak 28 igandera: Sal6n C6t6 Loisirs, [Hendaian](#). 80 erakusketari izango dituzu zain gastronomia, nautika, ongizatea eta lorezaintza arloetakoak. www.salon-cote-loisirs.com

Maiatzak 8 asteazkenetik maiatzak 11 larunbatera: Bidasoko Txirindulari Itzulua, irteerak eta/edo helmugak hiru hirietan, [Irunen](#), [Hondarribian](#) eta [Hendaian](#), bai eta aldameneko hirietan ere. www.vuelta-bidasoa.com

Maiatzak 10 ostiraletik maiatzak 12 igandera: Caravantur, karabanen eta autokarabanen erakusketa [Irun](#)go FICOBAn erakustazokan. <http://caravantur.ficoba.org>

Maiatzak 16 ostegunetik maiatzak 19 igandera: Antzerkiaren maiatza, [Hendaian](#). Artistek hiria hartzen dute ikuskizun bikainak eskainiz. www.hendaye-culture.fr/maidutheatre2019

Ekainak 8/9: Erdi Aroko Azoka eta Erdi Aroko Pintxoan erakusketa [Hondarribiko](#) hirigune historikoan.

Ekainak 15 larunbata: Irristatze eguna [Hendaian](#). Aukera bikaina surfean, skaten... hasteko, edo besterik gabe ongi pasatzeko. <https://journeedelaglissee.jimdo.com>

TURISMO NEWSLETTERRA

1. – 2019ko martxoa

